

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► **Ayuntamiento Pleno**

► **Akta** 2015eko Ekainak 13

Acta 13 de Junio de 2015

UDALBATZA BERRIAREN ERAKETARAKO BILKURAREN AGIRIA
ACTA DE LA SESION CONSTITUTIVA DEL NUEVO AYUNTAMIENTO

LEKUTURIKO ZINEGOTZIAK /CONSEJALES ASISTENTES

EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV)

Doña Aitziber Irigoras Alberdi Andrea
Doña Maria Jose Balier Orobio-Urrutia Andrea
Don Iker Oceja Sobron jauna
Doña Goiztidi Diaz Basterra Andrea
Don Victor Humberto Jaio Sagasti Jauna
Don Jose María Andres Ibañez de Garaio Jauna
Doña Olaia Albizu Gallastegi Andrea
Don Harri Guridi Ordeñana Jauna

EUSKAL HERRIA BILDU

Don Daniel Maeztu Perez Jauna
Doña Eider Uribe Padilla Andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro Jauna
Doña Rosa Maria Mintegi Egileor Andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu Jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga Jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)


Don Julian Luis Rios Santiago Jauna
Don Jorge Varela Dorrio Jauna
Doña Maria Juliana Perera Figueredo Andrea

PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI-EUSKADIKO EZKERRA
(PSOE) (PSE-EE (PSOE))

Doña Pilar Ríos Ramos Andrea
Don Mauricio Garcia Martin Jauna

PARTIDO POPULAR (PP)

Don Francisco Garate Mintegui Jauna



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Ayuntamiento Pleno

► Akta 2015eko Ekainak 13

Acta 13 de Junio de 2015

SECRETARIO / IDAZKARIA

Don Ramon Sorarrain Tolosa Jauna

INTERVENTORA / KONTUHARTZAILEA

Doña Pilar Velasco Pérez Andrea

Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, 2015ko Ekainaren 13ko 9:00retan, ekainak 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195 artikuluan ezarritakoa batez, lehen deialdian, eta Udalbatzaren eraketa-bilkura ospatu asmoz, arestian agertzen diren zinegotziak biltzen dira, behin behingoz erakustagiriak aurkeztu ondoren, euren pertsonalitatea ziurtatuz eta elkartzintasun, jarduera eta korporazioko kideen interes lerrokategietan inskribatzeko ondasunei buruzko aitorpenaren aurkezpena ziurtatuz.

MAHAIAREN ERAKETA

Adinean nagusia den VICTOR HUMBERTO JAIO SAGASTI JAUNA eta DON ARITZ BRAVO ZUBILLAGA JAUNA, zinegotziek osatzen dute adin mahia, tokoki hauteskunde batzordeak igorritako ziurtapenak adierazten dutenaren arabera, den HUMBERTO JAIO SAGASTI batzarburu delarik, adinean nagusia delako eta mahaiaren idazkaria Udalekoa den Ramon Sorarrain Tolosa jauna izanik.

UDALBATZA BERRIAREN ERAKETA

Hautatutako zinegotzi guztiak aurkeztu direla ziurtatu ondoren eta zinegotzi karguko jabetzeari dagozkion legezko


En la Sala Capitular de la Casa Consistorial a las 9:00 horas del día 13 de Junio de 2015, en primera convocatoria en cumplimiento de lo establecido en el artículo 95 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de Junio y a los efectos de celebrar sesión constitutiva del Ayuntamiento, se reúnen los Concejales electos que arriba se expresan, quienes han presentado provisionalmente sus credenciales, acreditando su personalidad y justificando la presentación de las oportunas declaraciones de causas de incompatibilidad, actividades y de bienes patrimoniales a efectos de su inscripción en los Registros de Intereses de los miembros de la Corporación.

FORMACION DE LA MESA

Queda formada la Mesa de Edad, integrada por DON VICTOR HUMBERTO JAIO SAGASTI y DON ARITZ BRAVO ZUBILLAGA, Concejales electos de mayor y menor edad, respectivamente, según se desprende de las certificaciones recibidas de la Junta Electoral de Zona, Presidiendo DON HUMBERTO JAIO SAGASTI por ser el de mayor edad y, actuando de Secretario de la misma, el que lo es de la Corporación Don Ramon Sorarrain Tolosa.

CONSTITUCION DEL NUEVO AYUNTAMIENTO

Seguidamente, comprobado que han comparecido la totalidad de los Concejales Electos y cumplidos los trámites legales de toma de posesión del Cargo



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Ayuntamiento Pleno

► Akta 2015eko Ekainak 13

Acta 13 de Junio de 2015

izapideak buruturik, mahaiko batzarburuak korporazio berria legalki eratu dela aldarrikatzen du.

Udalbatza eratu ondoren eta karguaz jabetu ahal izateko Zinegotzi hautatuek karguaren zin egite/hitz ematea burutzen dute.

Horrela eskaturik honako zinegotzi hauek hartuko dute hitza:

Julian Rios Santiago Jauna
HERRIAREN ESKUBIDEA alderdiaren
zerrenda-burua

Lehenengo eta behin, barkamena eskatu nahiko nuke, momentu honetan ezin dudalako hitzaldi guztia euskeraz egin. Ikasten ari naiz eta espero dut ahalik eta azkarren egin ahal izatea.

Herriaren Eskubidea udalean badago ehunka durangarrek euren botoen bidez ALDAKETA eskatu dutelako da. Botoa eman digutenek beste politika mota bat nahi dute, eta politika egiteko beste era bat ere bai.

Guk aldaketa hori dakargu: ideia berriak, hitz egiteko modu berriak, pertsona berriak, programa berriak,... eta guztiak herritarrek prestatuak. Eskuak zabalik ditugu aldaketarekin bat egin nahi duten guztiekin aritzeko, horrexegatik, alkate izateko aurkezten dugu gure burua herritarren, elkartearen eta aholkariaren ez duten guztien iritzia eta asmoak plazaratzeko.

Sistema bidegabe hau aldatu nahi dugu, pertsonak xehatu, kanporatu eta baztertu egiten dituelako.

Hortaz, hauxe da gure lan-orria hurrengo 4 urteetarako:

- Pertsonak erreskatatu.
- Gardentasuna: kontu garbiak, auditoria.

de Concejal, el Presidente de la mesa declara legalmente constituida la nueva Corporación.

Constituida la Corporación y para tomar posesión de sus cargos, los Señores Concejales proceden al juramento/promesa del cargo.

Habiéndolo así solicitado, toman uso de la palabra:

Julian Rios Santiago Jauna HERRIAREN
ESKUBIDEA alderdiaren zerrenda-burua

Lehenengo eta behin, barkamena eskatu nahiko nuke, momentu honetan ezin dudalako hitzaldi guztia euskeraz egin. Ikasten ari naiz eta espero dut ahalik eta azkarren egin ahal izatea.


La presencia de Herriaren Eskubidea en el Ayuntamiento es debido al deseo de CAMBIO que cientos de duranguenses y duranguesas reflejaron a través de su voto. Personas que quieren otra política y otra forma de hacer política.

Nosotros/as traemos ese cambio, nuevas ideas, nuevos lenguajes, nuevas personas, nuevos programas elaborados por la ciudadanía. Abrimos nuestras manos a todos y todas que quieran sumarse al cambio, por tanto nos postulamos como alcaldes y alcaldesas para hacer llegar la voz de la gente, de las personas, de las asociaciones, de todos y todas aquellas que no tienen voz.

Queremos cambiar este sistema injusto que tritura a las personas, que las expulsa y las excluye.

Por lo tanto, nuestra ruta de trabajo para estos 4 años:

- Rescatar a las personas
- transparencia: cuentas claras, auditoria.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Ayuntamiento Pleno

► Akta 2015eko Ekainak 13

Acta 13 de Junio de 2015

- *Parte-hartzea: politika egiten ari garen herritarrak gara.*
- *Berdintasuna, kultura, euskara eta eskubide sozialak babestuko ditugu.*

Durango hobe baten alde egingo dugu, non herritar guztiek lekua izango duten; Durango hurbilago bat nahi dugu, abegitsuagoa, aldaketa sozial, kultural, ekonomiko eta politikoaren bultzatza-indar izango dena. Durango eskuragarri bat, lagunkoia, jendearen arazoei irtenbideak eskainiko dizkiona.

Kausa sozial, kultural eta politiko guztien alde egongo gara, besotik helduta, gure ikur bakarra defentsa eta borroka izango direlarik. Guztiok elkartuta AHAL DUGU.

Hanka bat dugu erakundeetan, eta milaka hanka kaleetan.

Eskerrik asko etortzeagatik.

Daniel Maeztu Pérez jauna, EUSKAL HERRIA BILDU alderdiaren zerrendaburua:

Gaur datozen lau urteei begirako bide berri bat hasten du Udal honek. Eskerrak eman nahi dizkiegu lehenik, gure aldeko hautua egin eta babesa eman diguten herritarrei. Baita, beste aukera batzuk hautatuz herriaren hoberena desio duten herritar guztiei ere. Euskal Herria Bilduk, jarrera eraikitzailea eta irekia izanaz, herritarrekin batera herri honen alde egiten jarraitu nahi du.

Herritarrekin batera, bai. Gu ez gara herritarren bozgorailua bilkura areto honetan, gu politika instituzionala egitera etorri garen herritar gara. Herritarrei udal honetako ateak irekitzea nahi ditugu eta gure jardunaren atal garrantzitsuenak lau horma hauetatik kanpo egingo dugu. Ka-lean.

201 konpromiso sinatu genituen durangarrekin, Euskal Herrian konpromisoak sinatzen diren bezala, alegia, hitza emanez. Horregatik gure hautagaitza aurkezten dugu gaurko honetan,

- *Participación: somos ciudadanos y ciudadanas haciendo política*
- *Igualdad, cultura euskera y defensa de los derechos sociales.*

Queremos un Durango mejor, inclusivo, para todos y para todas, un Durango cercano, acogedor, motor de cambio social, cultural, económico y político. Un Durango accesible, un Durango amigable, un Durango que resuelva las problemáticas de la gente.

Estaremos al lado de todas las causas sociales, culturales, políticas etc, codo a codo sin hacer más bandera que la causa a defender y luchar. Entre todos y todas PODEMOS.

Tenemos un pie en las instituciones y mil pies en las calles


Eskerrik asko etortzeagatik.

Daniel Maeztu Pérez jauna, EUSKAL HERRIA BILDU alderdiaren zerrendaburua:

Hoy comienza un nuevo camino en este Ayuntamiento de cara a los cuatro años venideros. En primer lugar, queremos agradecer a los durangueses y duranguesas que han apostado por nosotros y que nos han dado su apoyo. También queremos agradecer a los que han optado por otras opciones pensando que es lo mejor que hacen por el pueblo. Euskal Herria Bildu, con una actitud constructiva y abierta, seguirá trabajando a favor de este pueblo de la mano de los ciudadanos y ciudadanas que lo integran.

Trabajaremos conjuntamente con los durangueses y duranguesas. No somos altavoz de los durangueses, somos ciudadanos que tenemos por objeto hacer política institucional. Queremos que se abran las puertas del Ayuntamiento a la ciudadanía, pero nuestra labor principal la haremos fuera de las cuatro paredes de este edificio consistorial: en la calle.

Suscribimos 201 compromisos con los durangueses y duranguesas, tal y como se suscriben los compromisos en Euskal Herria: dando la palabra a la ciudadanía. Es por ello que



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Ayuntamiento Pleno

► Akta 2015eko Ekainak 13

Acta 13 de Junio de 2015

konpromiso horiek betetzeko udala gobernatzea oso garrantzitsua delako. Udal baliabideak eta azpiegiturak herritarren zerbitzura jartzeko, udal gobernuak edukitzeak, errazten duelako. Gure konpromisoak beste talde guztiek dituzue, beraz, bat egiten baduzue konpromiso horiekin, edo behintzat, gehienekin, hona hemen EH Bilduren elkarlanerako proposamena.

Elkarlana ezinbestekoa izango delako udal honen politikak behetik gora eta eskumatik ezkerretara aldatzeko. Etxebizitzak egitetik, herrigintza egitera pasatzeko. Herritar bat bera ere ez botata utzi barik eta behingoz, Durango, especulatzeko leku zoragarri bat bezala ikusten dutenak, gure herritik kanpo botatzeko. Azken finean helburu orokor bezain garrantzitsu bat, Durangon, gutxi batzuk hobe bizi beharrean, denok ondo bizi behar dugu.

Erabaki potoloak hartzeko legealdia daukagu aurretik, trenbideak banatzen zituen bi Durango izatetik Durango bakar batera, eta erabaki horiek denon artean hartu behar ditugu eta ez despatxu itxietan. Tokiko garapenean oinarritzen den zerbitzu hiri jasagarria eta trantsizio sozio ekonomikoa ezin bestean egin behar duen eskualde burua. Hori da EH Bildu hurrengo lau urtetan eraiki nahi duen Durango.

Baina gure eguneroko jardunean, ez dugu soilik Durangon dauden Durangarrak kontutan hartuko, Durangotik kanpo dauden Durangarren-tzako ere lan egingo dugu, eurentzako eta euren senitarteentzako. Aste honetan Durangar bat, osasun arreta duina jasotzeko eskubidea urrutia ikusi du. Badajozen, Gorka Fraile Durangarrak eta bere senitartekoek onartezina den tratu jaso dute.

Pertsona guztientzako eskubide guztiak eskatuko ditugu, hori baita EH Bildurentzat herri hau bizi duen gatazka politikoa gainditzeko bide bakarra. Biktima guztiak aitortuz eta errespetatuz, mendekuaren politika gaindituz, elkarbizitza lortze aldera.

Beraz, 201 konpromiso zehatz Durango behetik gora aldatzeko, elkarlanerako proposamen zintzo bat eta giza eskubideekin konpromiso irmoa. 3 ardatz horiek dira hurrengo 4 urteetan gure jarduna baldintzatuko duten ildo nagusiak. 7

presentamos nuestra candidatura, porque pensamos que es muy importante alcanzar el gobierno municipal. La consecución del gobierno municipal facilita poner al servicio de la ciudadanía los recursos e infraestructuras municipales. Todos conocéis los compromisos que hemos presentado, por ello, si estáis de acuerdo con ellos o con la mayoría de ellos, os lanzamos la propuesta de trabajar conjuntamente con EH Bildu.


Consideramos imprescindible el trabajo en común para cambiar las políticas de abajo a arriba y de derecha a izquierda. Proponemos pasar de la construcción de viviendas a la construcción social, sin dejar de lado a ninguna persona y expulsando de nuestro pueblo a aquellas que ven a Durango como un lugar estupendo para especular. El objetivo último lo tenemos muy claro: que en Durango seamos todos los que vivamos bien, y no solo unos pocos.

Tenemos ante nosotros una legislatura en la que se adoptarán acuerdos muy importantes: hemos pasado de un Durango dividido en dos por las vías del tren a un Durango unido. Pero las decisiones las debemos adoptar entre todos, y no en despachos cerrados. Somos cabeza de comarca y ciudad de servicios sostenible que debe necesariamente llevar a cabo una transición socio-económica. Ese es el Durango que EH Bildu quiere construir en los próximos cuatro años.

Pero en nuestra tarea cotidiana no tendremos en cuenta solo a los durangueses y duranguesas que viven en Durango, también trabajaremos por los durangueses que residen fuera de Durango: trabajaremos a favor de ellos y de sus familiares. Esta misma semana se ha vulnerado el derecho a la atención médica a un durangués. Estoy hablando de Gorka Fraile. Y sus familiares han tenido también que padecer un trato inaceptable.

Reclamamos todos los derechos para todas las personas, porque para EH Bildu es esta la única vía para superar el conflicto político que vive este pueblo, reconociendo y respetando a todas las víctimas, superando la política de venganza y consiguiendo la convivencia.

En consecuencia, presentamos 201 compromisos concretos para cambiar Durango de abajo a arriba, una propuesta sincera de trabajo en común y un compromiso firme con los derechos humanos. Estos tres ejes vertebrarán nuestra acción política durante los próximos cuatro años.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta 2015eko Ekainak 13

Acta 13 de Junio de 2015

zinegotzi eta 4.300 Durangar bat egiten dute ildo horiekin, uste dugu bai areto honetan zein Durangoko kaleetan askoz gehiago direla. Beraz, agerian utz dezagun legealdi honetako lehenengo egunetik, zeintzuk dira elkarlanerako aukerak.

7 concejales y 4.300 durangueses y duranguesas avalan esta línea, pero pensamos que tanto en esta sala como en la calle son más las personas que la apoyan. Por tanto, queremos dejar claro desde el primer día de esta legislatura cuáles van a ser las opciones para el trabajo en común.

Jarraian, alkatearen hautaketari ekiten zaio, honetarako, eta aipaturiko ekainaren 19ko 5/1995 lege organikoaren 196 artikuluan ezarritako arautegiaren arabera, ondoren agertzen diren zinegotziak aldarrikatzen dira alkategai bezala:

Acto seguido, se procede a la elección del Alcalde, a cuyo efecto, de acuerdo con la normativa establecida en el artículo 196 de la citada Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, se proclaman candidatos para la Alcaldía a los Concejales que seguidamente se relacionan:

ALKATEGAIAREN IZENA

NOMBRE DEL CANDIDATO:

Aitziber Irigoras Alberdi anderea, EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO alderdiaren zerrenda-burua.

Doña Aitziber Irigoras Alberdi, cabeza de lista de la formación EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO.

Daniel Maeztu Pérez jauna, Euskal Herria Bildu alderdiaren zerrenda-burua

Don Daniel Maeztu Pérez, cabeza de lista de la formación Euskal Herria Bildu.

Julian Rios Santiago Jauna HERRIAREN ESKUBIDEA alderdiaren zerrenda-burua

Don Julian Rios Santiago cabeza de lista de la formación HERRIAREN ESKUBIDEA.

Lekutariko zinegotziek bozkatu egiten dute isilpeko papeletaz eta urnan utziz.


Los Concejales asistentes proceden a la votación con papeleta secreta y depositada en una urna.

Bozketa amaitu ondoren botoen zenbaketari ekiten zaio honako emaitza honekin:

Acabada la votación se procede al recuento de votos con el resultado siguiente:

Emandako botoak 21.
Boto zuriak 1.

Votos emitidos 21.
Votos en blanco 1.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Ayuntamiento Pleno

► Akta 2015eko Ekainak 13

Acta 13 de Junio de 2015

HAUTAGAIAREN IZENA ETA BOTU-ZENBATEKOA.

Aitziber Irigoras Alberdi Andrea: 10.
Daniel Maeztu Pérez Jauna: 7.
Julian Rios Santiago Jauna: 3.

NOMBRE DE LOS CANDIDATOS Y VOTOS OBTENIDOS

Doña Aitziber Irigoras Alberdi: 10.
Don Daniel Maeztu Pérez: 7.
Don Julian Rios Santiago: 3.

Ekainaren 19ko 5/1995 lege organikoaren 196 c) artikuluan ezarritakoaren arabera **AITZIBER IRIGORAS ALBERDI ANDREA (EAJ/PNV)** hautatzen da eta alkate andrea izendatua geratzen dela adierazten da.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 196 c) de la citada Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, resulta elegido **DOÑA AITZIBER IRIGORAS ALBERDI (EAJ/PNV)** manifestándose que queda proclamada Alcaldesa.

Aitziber Irigoras Alberdi A. Alkate andrea izendatu ondoren, honek, karguari dagozkion beharrianak zintzoki betetzeko hitza ematen du.

Tras la proclamación de Alcalde de Doña Aitziber Irigoras Alberdi, acepta el cargo y presta promesa de cumplir fielmente las obligaciones del cargo.

Aitziber Irigoras Alberdi Andreak (EAJ/PNV) hitza hartu eta honako hau adierazten du:

Toma la palabra Doña Aitziber Irigoras Alberdi (EAJ/PNV) para expresar:

Udalbatza-kide estimatuak, herritarrak, jaun-andreak, egun on denoi.


Estimados compañeros y compañeras de corporación, señores y señoras, buenos días a todos.

Ohore handia da niretzat berriro ere durangarron Alkate izatea. Karguaren betebeharrak zintzotasunez betetzea espero dut, bai eta herritarrekin hartutako gure konpromisoak leialtasunez aurrera eramatea ere.

Es un gran honor para mí volver a ser alcaldesa de Durango. Espero cumplir las responsabilidades de mi cargo con honradez y llevar a cabo los compromisos adquiridos con la ciudadanía con absoluta lealtad.

Illo beretik, eskerrak ematea nahiko nuke. Alde batetik, nire alderdiari, Euzko Alderdi Jeltzaleari, hain zuzen ere, nigan konfiantza erakutsi duelako ni neu alderdiaren zerrenda-buru jarri eta, bide horri jarraituta, Alkate moduan ni hautagai moduan aurkeztuz. Bestetik, bidezkoa da durangarrei ere esker onak ematea, euren botoengatik izan garelako, Udal Hauteskundeetan, zerrendarik bozkatuena eta, ondorioz, aukera izango dugulako Udal honen Gobernu osoatzeko.

Así mismo, deseo también agradecer, por un lado, a mi partido, al Partido Nacionalista Vasco, por la confianza que han depositado en mí al colocarme como cabeza de lista del partido, esto es, presentándome como candidata al cargo de alcalde. Agradezco también a los durangueses y duranguesas porque gracias al voto que nos han dado hemos sido la lista más votada en las elecciones municipales y, en consecuencia, porque nos han brindado la oportunidad de formar gobierno municipal.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Ayuntamiento Pleno

► Akta 2015eko Ekainak 13

Acta 13 de Junio de 2015

Hainbat proiektu ditugu abian jarri, garatu eta gauzatzeko eta, logikoa denez, bidetik sortuko zaizkigu erronka berriak. Batzuek irtenbide errazagoa izango dute; beste batzuk zailagoak izango dira, zalantza barik. Horiei guztiei aurre egiteko kemena eta indarra daukagu. Gure hauteskunde programaren lerroei tinko helduta, jarritako helburuak erdiesteko medio guztiak jarriko ditugula berretsi nahi dut gaur hemen, durangarron arazorik larrienei erantzuna eman ahal izateko.


Legealdi konplexua baina interesgarria dugu hemendik eta aurrerantzean. Argi eta garbi daukagu durangarron arazorik larriena lanpostua aurkitzeko zailtasuna dela, lan-gabezia hain zuzen ere, eta gure indar eta esfortzu guztiak jarri behar ditugu egoera honi buelta eman ahal izateko eta gizarte durangarrak aurrera egiteko gizaki oro kontuan hartuta eta inor ere bazterrean utzi barik, ahalegin ekonomikoak zein gizarte ekintzako baliabideak uztartuz. Irtenbideak bilatu eta aurkitu nahi dizkiogu, baita ere, etxebizitza duina lortzearen arazoari. Areal bere, badaude era berezian landu nahi ditugun beste hainbat alor: berdintasuna, euskara, herritarren parte hartzea, Tokiko Agenda 21 etab. Zintzotasunez landuko ditugu horiek guztiak.

Amaitzeko unea da, alabaina, ez nuke bukatu nahi ondoko konpromiso hau argi eta garbi utzi barik. Asko daukagu aurretik egiteko eta nire talde osoaren izenean hitz egiten dut hurrengo esatean: talde politiko guztiekin egon, eseri, hitz egin, negoziatu eta akordiorik zabalenak lortzea nahi dugu. Guzti-guztion helburua Durango hobetzea da, zalantzarik gabe. Xede hori eskuratu ahal izateko berba egin eta akordioak lortu behar ditugu. Gure asmo nabaria horixe da, eta nahi horri tinko eta leialtasunez ekingo diogu.

Tenemos en marcha varios proyectos y, como es lógico, estamos seguros que saldrán también nuevos retos. Algunos de los proyectos no parecen muy complicados de resolver, pero otros, sin duda alguna, serán algo más peliagudos. Tenemos la energía y la fuerza necesaria para sacar adelante tanto los unos como los otros. Siguiendo las líneas marcadas en nuestro programa electoral, ratifico nuestra intención de poner todos los medios a nuestra disposición en aras a dar una respuesta a los problemas más acuciantes de los duranguenses.

Tenemos ante nosotros una legislatura compleja pero interesante. Somos conscientes de que el mayor problema de los duranguenses y duranguesas es la dificultad de encontrar un puesto de trabajo: hablo lógicamente del paro, y es por ello que debemos esforzarnos en dar la vuelta a esta situación para que la sociedad duranguesa, en conjunto, avance, sin excluir a nadie, aunando los esfuerzos en materia económica y los recursos del ámbito de acción social. Así mismo, debemos buscar soluciones al problema de la adquisición de una vivienda digna. Y también queremos trabajar de manera especial en otros espacios, tales como, Agenda Local 21. Trabajaremos con honestidad en todos ellos.

Es el momento de terminar mi alocución, pero no quisiera concluir sin dejar bien claro el siguiente compromiso: tenemos mucho trabajo por delante, y hablo en nombre de mi grupo para decir que deseamos estar, sentarnos, hablar, negociar y alcanzar los acuerdos más amplios con todos los grupos políticos. Es el objetivo de todos nosotros construir un Durango mejor y mejorar la calidad de vida de todos los duranguenses y duranguesas. Para ello, es preciso hablar y alcanzar acuerdos. Este es nuestro objetivo, por lo que trabajaremos con honradez y firmeza para conseguirlo.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Ayuntamiento Pleno

► Akta 2015eko Ekainak 13

Acta 13 de Junio de 2015

Mila esker, bihotzez, Talde politiko guztiei eta taldeotako Zinegotziei. Baita ere areto honetara etorri zareten guztiori. Esker mila nire Taldeko Zinegotziei, lagunei. Lanari ekin berehala. Eskerrik asko.

Muchas gracias, de todo corazón, a todos los Grupos políticos y a los Corporativos que los componen. Muchas gracias también a los que habéis venido a este Salón de Plenos. Muchas gracias a los Concejales de mi Grupo político, a los amigos y amigas. Es el momento de empezar a trabajar. Muchas gracias.



Alkate andrearen lehendakaritza pean korporazioa eratua geratu ondoren, egintza amaitutzat ematen da 10:00etan, honako agiri hau luzatuz, eta, neuk, idazkariak, fede damait.

Constituida la Corporación bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa, se da por finalizado el Acto levantándose la sesión a las 10:00 horas; de todo lo cual se extiende la presente Acta, doy fe, el Secretario.